



CONSEIL DE DEVELOPPEMENT DU PAYS BASQUE
IPAR EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA

IEHGKaren abiatze prentsaurrekoa

PRENTSA TXOSTENA



Gurekin etorri urriak 31 aitzin !

IEHGKk elkartearen kideen erreberitze kanpaina abian jarri du, hurrengo 3 urteetarako (2024-2026). Garapen kontseiluak lurraldeko bizitza ekonomiko, sozial eta kulturalean ehun bat erakunde biltzen ditu eta ehun bat herritar ere. IEHGKk ahalik eta ondoen ordezkatu nahi ditu, jardueren, lurraldeen eta biztanleen soziologiaren aniztasuna. Ikusi gaur egungo osaketa [hemen](#).

IEHGKk hiru eginkizun nagusi ditu.

- **Iparraldearen etorkizunari buruzko gogoetak bultzatzea** : herritarrekin, eragile publiko eta pribatuekin, egunerokotasunean lurraldea eraikitzen dutenekin.
- **Politika publikoetan parte hartzea** : hori da, hain zuzen ere, Euskal Hirigune Elkargoaren kasua, IEHGKren partaidetzan denez.
- **Gizarte eta lurralde berrikuntzak sustatzea** : erronka berriak aztertzea, ikuspegi kolektibo berriak esperimentatzea...



Praktikan : herritar edo elkarte batek urriaren 31 arte bere hautagaitza bidali dezake. Informazioa eta izen emateak gure webgunean : jendarte-iparralde.eus

IEHGKaren berriak

Azken hilabeteetan, IEHGKk hainbat gai landu ditu eztabaiden, tailerren, iritzi txostenen bidez, hautetsiei egindako proposamenekin edo esperimentazioak burutuz.

IEHGKk landutako gaien adibide batzuk :

- **LuKE** eta **hTHPri** buruzko lan sakona, plangintzarako tresna horiek **Euskal Herri barnealdearen garapenerako zentzua izan dezaten**. Urte hasieran ekarpen bat egin ondoren, eztabaida ugari egin dira Barnealdean, eta IEHGKk Iparraldeko hautetsi guztiei dei egin nahi die, irailaren 20an bozkatuko den testu baten bidez.
- Elkargoaren **elikadura planaren** ebaluazioa (LEP) : IEHGKk **politika publikoari** buruz egindako lehen **ebaluazioa da**, egin daitezken hobekuntzak identifikatzeko. Irailaren 20an bozkatuko da.
- IEHGKk **gazteak orientatzeko** programa bultzatzen segitzen du, Akitania Berriko Eskualdearen laguntzarekin (« **ibilBIDE** » du izena). Hugo Ferraris animatzaile gisa kontratatu zuen enpresa sare bat sortzeko, lurraldeko gazteei ateak irekitzeko konpromisoa hartuko duten enpresek, gazteek lanbide mundua errazago ezagut dezaten.
- IEHGKk Elena Casiriain doktoregaia du alboan 2022 urteko amaiera ezgeroztik, **mugaz gaindiko praktikei** buruzko lan antropologikoa egiteko eta dinamika berriak azaleratzeko. **Euroeskualdeak MUGALUR** proiektua sustengatzen du, Xiberoa eta Txingudi arteko dozenaka tokitan parte hartzeko animazioak eskeiniz.
- Eskualdeko Kontseiluak eta Euskal Hirigune Elkargoak sustengua eman diote (2023-2025 Lurralde Kontratuan) IEHGKk sustatuko duen « Iparralde 2040 » ikuspegiari.

Pays Basque 2040 | Iparralde 2040

Datorren urtarrilean elkarteko instantziak berriro ondoren, Garapen Kontseiluak « Pays Basque 2040 | Iparralde 2040 » jarriko du abian : lurraldearen etorkizunari buruzko eztabaida publiko handia, lurraldeko biztanle eta eragile guztientzat irekia.

IEHGKk planteatzen diren erronka handiak (ekonomikoak, ekologikoak, sozialak, kulturalak, bizilekuarenak, mugikortasunarenak etab.) eguneratzeko asmoz prestatu du lan hau. Biharko nahi dugun gizarteari buruz urrunago begiratzuz : nola hobe errezibitu, nola barneratu, nola lagundu gure adinekoei, nola sortu gizarte kohesioa, eta gazteentzako etorkizuna...

Edozein ekarpen edo partaidetza helbide honetara bidali daiteke participation@societecivile-paysbasque.com